

noaue

**Ikastaro ugari
aukeran**

**Baxurde Krosean
izena emateko
epea zabalik da**

**Larunbat honetan,
“Harria hitz” ibilbidea
osatzeko aukera berri bat**



Jai giroan igaro da uda

Islandia
(kruzeroa)

Noruegako Fiordoak
(kruzeroa)

Rusia

Eslovenia & Istria

Zetako bidea
(Uzbekistan)

BIDAIK TALDEAN

NOAOA BIDAIAK

IRTEERA 2020
LASARTE ORIATIK, NOAOAK GIDATUA

943 37 36 13 info@noaoa.eus noaoa.eus

FUNERARIA GONZALEZ
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

**OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO,
HERIOTZA GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).**

MOMENTU LATZETAN DENETAZ ARDURATZEN GARA

943 36 21 63 (24H)

•BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... •ERRAUSKETAK

www.funerariagonzalez.es

Ingeleseko klaseak haur eta helduentzat

Maila guztiak

High level "use your English"

Elkarrizketa klaseak (helduak)

Matrikulatzea dohainik

Bertako irakasleak

Azterketen prestakuntza,

First
Advanced
Proficiency

tobyngana
english SCHOOL

Gozatu eta ikasi!

Eman izena lehen bait lehen, Irailak 9an hasten gara!

686 499 775 (Toby) • tobyngana@hotmail.com • Alperroburu 2, Usurbil

Albisteak iruditan

Dispertsioaren aurkako martxa



Abuztuaren 4an Orioko hondartzara eraman zuten dispertsioaren aurkako aldarria eta baita ere Xua Gurasoekin Etxera eskakizuna. Usurbildar talde batek ere bertan hartu zuen parte, tartean, Olatz Lasagabasterren eta Patxi Urangaren senide eta lagunek.

Laburrean

1955ean jaiotakoen kinto eguna, urriaren 19an

Añana Gatzaga bisitatu, Nerbioi saltoa ikustatu eta Urduñan bazkaldu. Aurrekontua, 65 euro inguru. Izena eman iraila bukatzerako, erreserbak garaiz egiteko. Maribi (675 006445), Patxi (615760458). Edo emailaz: 1955usurbil@gmail.com

1979an jaiotakoen kinto bazkaria

“Xetentainuebe-ko kintoek urriaren 12an bazkari batekin ospatuko dugu 40 urte betetzen ditugula”. Garai berekoa izan eta animatzen bazara, mezua bidali telefono zenbaki honetara: 666 093 592 (Saioa).

1969an jaiotakoak, urriaren 26an Atxegan

“Bazkalostean, musika eta giro ona izango ditugu”, iragarri dute. Aurten 50 urte beteko dituztenen bilkurarako izen ematea aurrez bideratu beharko da, urriaren 18a baino lehen 50 euroko ordainketa eginda: 3008 0259 17 40382 18121 (Rural Kutxa).

noaqua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 ||| elkarte@noaqua.eus ||| www.noaqua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Aizpea Aizpurua.
Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte,
Itxaso Orbegozo.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaqua.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Jon Galbete.
Tirada: 2.800 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaqua.eus



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herrira!



Itxaso Orbegoza

Iraila is the new urtarrila

Askotan sinetsarazi digute urtea urtarri-laren lean hasten dela, nire ustez, ordea, irailarekin bat hasten da urtea. Urtarrilean baino aldaketa askoz gehiago izaten ditugu iraillean. Askok eta askok lane-ira itzuli gara urteko oporrik luzeenak pasatuta; errutina eta monotonian sartu behar berriz ere. Gurasoen kasuan ikastolarako materiala, arropa, kiroletan izena ematea... gazteleraz esaten den “urtarrileko aldapa” iraillean errepikatzen da, eta sarritan malda handiagoarekin. Ikasleentzat ere berdin. Batzuk ikastola amaitu eta batxilerrera joango dira, beste batzuk unibertsitatean hasiko dira, beste asko masterretan eta izango da doktoretza egingo duenik ere. Horientzat ere urte hasiera izango da, aldaketen garaia eta ikasturtea antolatzen hasteko momentua. Udan lanean aritu diren askorentzat kontratuaren amaiera izango da, eta gradua amaitu dutenentzat lan bilaketa zoragarri horretan hasteko unea. Iraila is the new urtarrila.

Oraindik egunerokotasunera itzuli nahi ez duten horiek izango dute ondo pasatzeko abagunerik; bi aste baino ez dira falta Santueneako jaietarako eta hilabete inguru Aginagako San Praxkuetarako. Ni, egia esan beti izan naiz festa zalea, baina azken urtean ez ditut berdin ikusten jaiak. San Praxkuak behin pasata ezin zoriontsuago izango naiz. Orain jabetu naiz jai giroan beste ardurarik gabe ibiltzea zein zoragarria den. Jaiak beste aurpegi bat ikustea egokitu zait orain, eta jakina, ez dut horren gustuko. Hala ere, ezezkoa badirudi ere, baditu bere alde onak. Umeen Egun guztietan atzera eta aurrera ibiltzea egokitu zait, nahiz eta nik herriko oso ume gutxi ezagutu. Zubietan, Urdaiagan eta Atxegalden egin dut topo ume askorekin eta orain, kalean aurkitzean agurtu egiten naute zenbaitek. Helduen kasuan ere antzeko; mus txapelketen tourra egiten duenik bada gurean. Herriko parranderoak lehenagotik ere ezagutzen nituen, baina urtez urte aurpegi berriak sartzen dira gaueko mundu horretan.


Santuenean ere ziur aurkituko ditudala haurrak, mus jokalaria eta parrandazaleak; geroago, Aginagan. Ez dakit zeintzuk ditudan nahiago, egia esan. Mus jokalaria lasaiak izan ohi dira lehen partidua galdu eta torneotik kanpo geratzen diren arte. Galdu izanaren eramenezina eta ordura arte edandako garagardoen efektuak bat egitean, hobe bertatik alde egitea. Parrandazaleen profila ere antzekoa da, gaueko 12etatik goizeko 8ak bitarte eraldaketa amaigabeak izaten dituzte. Okerrena da aldez aurretik eraldaketa horren nondik norakoak jakitea ez dela erraza izaten. Batzuetan gogo gutxi eta logura izatetik goren mailara pasatzen dira; beste askotan alderantziz ere bai. Bada afaritan jandako zerbaitek goizeko 4etan kalte egiten dionik, eta etxekorako bidea ahazten duenik ere izaten da. Haurrak dira azkenean, gogokoen ditudan jaietako pertsonak, eta pentsa ez naizela batere umezalea. Horiekin topatzea izango dut gustokoen hilabete osoan zehar. Jai Batzordeetako kideak ere ezin aipatu gabe utzi ana-

lisi honetan. Talde horretan bi azpitalde nabarmentzen dira: argazki guztietan atera eta jaietako protagonistak izan nahi dutenak, eta argazkietatik ihes ibiltzen direnak. Kasu honetan ere ez dakit zeintzuk ditudan nahiago, biek ematen dute lan asko. Ezinbestean topatuko ditut hauek ere auzoko jaietan.

Horiek guztiak festaz festa dabiltzan bitartean, ni eta nire kamera ere bertan izango gara. Nik ere gogotsu hartu beharko ditut jai horiek, ikasturte berriarekin, HHTik LHra pasatu eta andereño berria ezagutzeko irrikaz dagoen haurra bezala. Niretzat, beraz, oraindik ez da “urte berria” hasi gainontzekoen kasuan ez bezala. San Praxkuen amaierarekin hasiko da nire “urte berria”, gainontzekoena baino hilabete eta erdi beranduago. Alderantzizko norantzan ibiltzen gara batzuk beti, parrandazaleen erruz edo horiei esker. Iraillean bizitza berri bati ekiteko aukerarik ez dugun guztiok ez dugu urtarrik izaten. Kazetariontzat iraila is not the new urtarrila.

Aroa Etxeburua Ugartemendia | **Itxaso Orbegoza** | Imanol Ubema | Aritz Gorriti | Luis Aranalde | Garazi Lizaso Manterola | Luken Arkarazo

Komikia



TOKIKOMeko hainbat hedabidek sustaturiko tira komikoa.

Zumarte Musika Eskolako obren exekuzio epea 22 astez luzatuko da

Uztailaren 23ko ezohiko udal bilkuran aho batez onartu zuten Portalmusu eta Komentuen kontzertazio-hitzarmena. Alegazioak aurkezteko epea amaitu da eta halakorik aurkeztu ez denez, kontzertazio-hitzarmena behin betiko onartu du udalbatzak.

Adinekoen egoitza berria eraikitzeko beste urrats bat

A-96 (Portalmusu) eta A-97 (Komentua) eremuetako kontzertazio-hitzarmena behin betiko onartu dute udal ordezkariak. Ekainaren 5ean hasieraz onartu eta 20 eguneko epea zabaldu zuten alegazioak aurkezteko eta halakorik izan ezenez, udal ordezkari guztiek onartu zuten hitzarmena. Matia Fundazioak Kalezarren egin asmo duen adinekoen egoitzarako beste urrats bat gehiago eman zen, beraz, uztailaren 23ko ez-ohiko plenoan.

Ama birjinaren irudia

EAJ alderdiak proposatu zuen komentuan aspaldian gordetako Lurdeseko Ama birjinaren irudia gordetzea, eta EH Bilduk auzitan jarri zuen eremu berrian erlijio ikurrak mantentzen jarraitzearen ideia.



Uztailaren 23an ez-ohiko plenoa egin zuten udaletxean. Abuztuan ez zen plenorik izan. Argazkia, artxibokoa.

TRAMITAZIO URBANISTIKOA

“Matia Fundazioak Kalezarren egingo duen adinekoen egoitzarako beste urrats bat gehiago eman zen uztailaren 23ko ez-ohiko plenoan”

EAJ-ko zerrendaburuaren arduraldi partziala

Gai gehiago ere landu zituzten uztailako bilkuran. EAJ-ko zerrendaburuaren arduraldi partzialaren proposamenaren aurrean adostasun eza erakutsi zuen EH Bilduk, argudiatuz ez dagoela aurreko legealditik aldaketa hori emateko pisuzko arrazoirik. Aurreko legealdiko mailari eutsi beharko dio, be-

raz, legealdi hartako irizpideak jarraiki. Alderdi guztientzat irizpide berak jarraitzea da EH Bilduren argudioen funtsa. Josune Urkola zinegotzi jeltzaleari arduraldi partziala ezarri zaio beraz, 13. mailari dago-kion zenbatekoarekin.

EH Bilduren proposamenaren aurka bozkatu zuen EAJ-k eta PSE abstenitu egin zen.

Udal talde politikoen eta zinegotzien ordaindariak

Aurreko legealdiko ordaindariak bere horretan jarraituko dute legealdi berrian. 50 euroko dietak emango zaizkie zinegotziei plenoetara, tokiko gobernu batzordeetara eta batzorde informatzaileetara bertaratzegatik. 4.800 euro urtean, alderdiek jasoko du-

ten zenbatekoa eta 1.300 euro pertsonako eskuratuko dutena.

Zumarteko obra kontratuan aldaketak

Zumarte Musika Eskola birgaitu eta handitzeko C. Moyua enpresarekin izenpetutako obra kontratuan aldaketak eskatu zituen enpresak; 22 asteko obra luzapena eskatzen zuen enpresak errekurtsio birtartez. EH Bildu eta EAJ alde agertu ziren, PSE abstenitu egin zen.

Nafarroa erdialdean izandako uholdeen aurrean, elkartasuna

Usurbilgo udal taldeek elkartasuna adierazi diete Nafarroa erdialdean izandako uholdeetan kaltetutako herriei eta etxera zihoala autoan harrapatuta hil zen gizonaren familiari. Udalak 1.000 euroko diru-laguntza emango die kaltetutako herriei, diru-laguntzak eskaintzeko ireki dituzten hiru kontu korranteetako batean dirua sartuta. Herritarrek ekonomikoki laguntzera bultzatu nahi ditu udalak, halakorik Usurbilen gertatuz gero jaso nahiko genukeena besteei ematea eskatuta. Eskaera hori egingo die udalak herritarrei. EAJ abstenitu egin zen erabaki horren aurrean.

Pheland McDermid Fundazioari diru-laguntza

Uztailaren 6an Usurbilen egindako Uxue Trail lasterketa solidarioaren harira, 1.000 euroko diru-laguntza eman go zaio Pheland McDermid Fundazioari alkatetzako diru partidatik. Uxue Martin usurbildarrak 9 urte ditu eta Phe-

land McDermid gaixotasuna dauka. 115 kasu baino ez dira ezagutzen Euskal Herrian eta Espainian, eta gaixotasun arrazotzat hartzen da. Haurrek behar dituzten sendagaiak lortu eta familiei laguntzeko lanean dihardu fundazioak.



1.000 euroko diru-laguntza eman dio Udalak Pheland McDermid Fundazioari. Uztailaren 6an, Uxue Trail elkartasun lasterketa egin zen.

Santuenea Kultur Elkarteak: “Bi apustu egin ditugu aurten: Jon Etxaberen hitzaldiak eta aeroyoga”

Ikasturtea hastera doa eta udari agur esateko garaia iritsi zaie hainbat elkarteri. Santuenea Kultur Elkarteak da horietako bat, irailetik aurrera jarduera eskaintza proposamen berriarekin baitatoka. 2004an elkarteak sortu zutenetik hainbat jarduera antolatu dituzte Santuenean, bertako auzokideak bildu eta harremanak estutu asmoz. Gorabehera handiei aurre egin behar izan diete azken urteotan, baina aurrera egin du elkarteak. Alazne Lazkano elkarteak idazkariarekin eta Jon Etxabe psikologo eta sexologoarekin izan da NOAUA!, aurtengo ikasturteko jardueren inguruko informazioa biltzeko.

NOAUA! Jarduera dezente eskaintzen dituzue aurtengo ikasturterako. Zeintzuk azpimarratuko zenituzkete?

Alazne Lazkano: Bi apustu nagusi egin ditugu aurtengo ikasturtean: Jonek eskainiko dituen hitzaldiak eta aeroyoga. Kultur elkarte gisa funtzionatzen hasi ginenetik hainbat jarduera egin ditugu Santuenean: autoestima



“Aeroyoga aurreko ikasturtean estreinatu genuen eta ongi funtzionatu bazuen ere, aurtengoan indar gehiago eman nahi diogu”.

ALAZNE LAZKANO

“Jubilatuak daramate Tai Chiaren jarduera eta oso gustura ibiltzen dira. Hamabost bat pertsona ibili ziren iaz”

tailerra, pintura tailerra, yoga, dantza...

Jarduerari bultzada emateko ordua iritsi dela uste dugu eta orduan Jon Etxaberekin jarri gara kontaktuan. Psikologia eta sexologia ikasketak amaitu zituen eta alabak aipatu zi-

dan oso azalpen interesgarriak ematen dituela sexologiaren gainean. Hitzaldi baten berri izan genuen eta eskuorria irakurtzeko aukera izan nuen. Gai delikatuak dira.

Aeroyoga aurreko ikasturtean estreinatu genuen eta ongi funtzionatu bazuen ere, aurtengoan indar gehiago eman nahi diogu.

Joan zen ikasturtean jende dezente ibili zen bai yogan eta baita aeroyogan ere.

A. L.: Aeroyoga sartu genuen joan zen ikasturtean gazteak hurbiltzeko. Haurrek jardueretan parte hartu ohi dute eta helduak ere ibiltzen gara, baina gazteetara iristea ez zaigu horren erraza egin. Joan zen urtean gazte dezente aritu zen aeroyogan eta aurten ere horrekin jarraitzea erabaki dugu. Yogan hogeita bat pertsona aritu ziren eta aeroyogan berrogei bat; bikoitza.

Auzoko jubilatuak daramate Tai Chiaren jarduera eta oso gustura ibiltzen dira. Hamabost bat pertsona edo ibili ziren iaz.

“Aurten, helduek ere argazki lehiaketan har dezakete parte”

NOAUA! Argazki lehiaketa martxan jartzekotan zarete. Lanak aurkezteko epea hilaren 9an ireki eta 16an amaituta.

Alazne Lazkano: Argazki lehiaketa 2004an hasi ginen egiten. Aurten zabaldu egin dugu parte hartzaileen profila; helduek ere parte har dezakete. “Auzoko oztopoak” gaia proposatu dugu aurten.

Bakoitzak oztopo horiek bere modura interpreta ditzake.

Ikusgai jarriko dituzue?

A. L.: Garai batean jartzen genituen, baina azken urteetan ez ditugu jarri. Duela urte batzuk San Tomas egunean jartzen genituen ikusgai.

Bazkideen artean saskia zozkatzen genuen eta orduan

jartzen genituen ikusgai aurkeztutako lanak, gabonetako jaiotza eskulaneekin batera.

Pintura tailerrarekin ere aurrera egingo duzue aurten, baina Susana Martin, urteetan irakasle izandakoa, ez da irakasle izango.

A.L.: Donostiako mutil batekin jarri ginen kontaktuan

Susanak aurtengoan ezingo duelako jarraitu.

ArteLekuren sorreran izandakoa da bera eta hurrekin ere esperientzia eta esku ona du. Oso artista ona da, batez ere eskultura landu du, baina marrazkilaritzan eta pinturan ere aritua da. Oso klase interesgarriak izango direla iruditzen zaigu.

Jon Etxabek “Sexologiaren oinarriak” izeneko hitzaldi sorta eskainiko du Santuenean

Psikologoa da Jon Etxabe, Santuenea auzokoa. Sexologian espezializatu zen eta aurtengo ikasturtean hiru hitzaldi eskainiko ditu sexologiaren gainean. Lehen hilaren 27an izango da, “Sexologiaren oinarriak” izenpean. Berarekin izan da NOAUA! hitzaldien gainean sakontzeko.

Sexologiaren gaia landuko duzu. Zer da hitzaldi horietan azaldu nahiko zenukeena?

Jon Etxabe: Sexologiaren gaia berez ez da horren delikatuia, baina lehen begiradan inpaktua sortzen du oraindik ere. Hitzaldi horiekin ikuspegi orokor bat eskaini nahi dugu sexologiaren inguruan. Hiru hitzalditan banatu genuen kontatzeko daukadan. Ni orduak eta egunak egon naiteke gaiaren inguruan hizketan, baina zehaztu beharra geneukan kontua. Lehen hitzaldia sexologiaren oinarrien gainean izango da: zer da sexologia? Zein ikuspegi lantzen ditu? Zeintzuk dira bere oinarriak? Zein hizkuntzatan ari gara? Guk sexua hitza erabiltzean, kale mailan, larrua jotzea da, baina sexua berez gizon edo emakume izate hori da eta erotika litzateke larrutan egitea. Gisa horretako kontuak landu eta garbitzea da lehenengo hitzaldi horren helburua. Maskulinitatea eta



“Zenbateko aniztasuna dagoen jabetzea oso interesgarria izan daiteke”, Jon Etxabek azaldu digunez.

JON ETXABE

“Hitzaldi hauekin ikuspegi orokor bat eskaini nahi dugu sexologiaren inguruan”

feminitatearen gaia eta sexologian garrantzia handia duten gai horiek landuko ditugu.

Sexu harremanetan sortzen diren gaixotasunak ere landuko ditugu, bai alde medikotik, bai alde psikologikotik. Egoera sozioekonomikoak zer nolako eragina eta garrantzia dituen sexologian... popurri bat sortzea pentsatu genuen eta mito eta egien gaineko gogoeta bat sortu bigarren hitzal-

di horretan. Ezinhobea litzateke lehen egunean hitzaldian parte hartutakoek modu anonimoan galderak uztea, bigarren horretan gai horiei heltzeko. Modu horretan publikoaren behar eta interesetara moldatuko ginateke, hori da azken finean elkarte batek egin beharrekoa: zein behar dauden identifikatu eta horiei erantzun. Nik gai batzuk prestatuta ditut hala ere, baina egokiena publikoak erabakitzea litzateke. Azken egunean, garrantzia berezia eman nahi nioke feminismoaren eta berdintasunaren gaiari. Etengabe gure inguruan ikusi eta lantzen dugun gaia da eta gaur egun ez dago feminismo bakar bat, mota askotakoa

izan daiteke feminismo hori. Pertsona bakoitza korrante batera lerratzen da nolabait. Hitz egiten da feminazismoaz, feminismo erradikalaz... Hori guztia aztertzea da nire asmoa eta bakoitzak borroka horretan laguntzeko zer egin dezakeen aztertuko dugu. Gizon zein emakumeek izan ditzaketen dudak argitu eta gaiaren inguruan sexologiaren ikuspegia aztertzea da nire asmoa.

Hitzaldi horietara zein adinetako jendea hurbiltzea espero duzu?

J. E.: Adin guztietara bideratutako tailerrak dira, modu horretan prestatu eta planteatu ditut behintzat. Badakit txikienak ez direla etorriko, gurasoengatik batez ere. Edadetuen artean ez dut mugarik ikusten, sexualitatea jaiotzen garenetik lantzen dugun zerbait da eta hiltzen garenan amaitzen da. Modu batean edo bestean, denok ikasiko dugu zerbait. Egoera eta espazio bat sortu ahal izatea adin ezberdinetako jendearekin oso aberasgarria izan daiteke. Gazte batek izan ditzakeen arazoetarako erantzuna izan dezake heldu batek, edo edadeko pertsona batek. Zenbateko aniztasuna dagoen jabetzea oso aberasgarria izan daitekeela uste dut. Adin guztietako jendea izango da ongi etorria.

“Adineko jendearentzat ere interesgarria izan daiteke”

NOAUA! Aurrerago hitzaldi hauei jarraipena emateko asmorik baduzue?

Alazne Lazkano: Aukera bat izan liteke jendearen erantzuna ona bada behintzat tailerren bat edo kurtsoren bat antolatzea Jonekin gai hauen gainean. Jendearen erantzuna eta Jonen asmo

eta gogoen arabera izango da hori.

Jon Etxabe: Ikusten badugu aurten ez dela jende gazterik hurbiltzen, helduagoetan jar genezake fokua. Harremanetzeko oso tresna interesgarria izan daiteke, jendea ezagutzeko modu bat.

A. L.: Adineko jendearentzat

interesgarria izan daiteke, nire ustez. Beste garai bateko kontuak direla uste dute askotan, baina eurak ere garai honetan bizi dira eta moldatu beharra daukate. Moldatu moldatzen dira, baina azalpenak jasoko balituzkete hobeto ulertuko lituzkete zenbait kontu.

J. E.: Aiton-amonek beren bilobak homosexualak direla jakitean, askotan sustoak ere hartzen dituzte kasik, ez? Zer ote dio honen inguruan jainkoak? Erantzunak gehienetan onak izaten dira, baina beren garaietan kontu arrotzak ziren haiek. Hezkuntza kontua da askotan.

Aeroyogan, yogan, tai-chin edota pinturan izena emateko aukera izango da Santuenean

2019-2020 ikasturtea

Ikastaroak

Astelehena

- 17:00 Tai-Chi.
- 19:10 Aeroyoga.
- 20:15 Aeroyoga.

Asteartea

- 09:05 Aeroyoga
- 10:10 Restauratiboa
- 14:45 Aeroyoga.
- 16:00-17:30 Hatha Yoga.
- 18:30-20:00 Hatha Yoga.
- 20:30-22:00 Hatha Yoga.

Asteazkena

- 18:05 Aeroyoga.
- 19:10 Aeroyoga.
- 20:15 Aeroyoga.

Osteguna

- 09:05 Aeroyoga.
- 10:10 Restauratiboa.
- 17:00 Reiki.
- 20:30-22:00 Hatha Yoga.

Ostirala

- 17:00 Tai-Chi.



Yogan hogeit bat pertsona aritu ziren iaz eta aeroyogan berrogei bat.

- **19:00 Pintura (ludotekan).

Hasiera datak eta izen emateak:

Santuenea 12koak:

- Aeroyoga: Irailak 16. (615715991).
- Yoga: Irailak 24. (619791170).
- Tai Chi: Urriko lehen astean (jubilatuetan).
- Santuenea 16koak (Ludoteka):
- Pintura (haurrak): Irailak 6 ostirala (630208471). Edo 670027731 telefono zenbakira deituz bestela.

Sexologiari buruzko hitzaldiak:

- Non: Santuenea 12an.
- Hizlaria: Jon Etxabe Telleria (Sexologo-psikologoa).

Irailak 27 ostirala

- Ordua: 18:00.
- Gaia: "Sexologia oinarriak".

Urriak 18 ostirala

- Ordua: 18:00.
- Gaia: "Mitoak eta egiak sexologian".

Abenduak 20 ostirala

- Ordua: 18:00.

- Gaia: "Berdintasuna eta generoa".

"Santueneko oztopoak" argazki lehiaketa:

Gaia: "Santueneko Oztopoak"

- Izen-ematea: Irailak 9tik 16ra bitartean.
- Argazkiak aurkezteko azken eguna: irailak 30.

- Hiru kategoria: Haurrak: 4-7 urte. Gaztetxoak: 8-16 urte. Helduak.

Xehetasun gehiagorako:

Santueneko ludotekan eta elkarteko egoitzan jaso ahal izango da xehetasun gehiagoren berri. Edo 670027731 telefono zenbakian.

Epaitzear dituzten 47 euskal herritarrei babesa adierazteko deialdiak

Irailaren 16tik aurrera 11/13 sumarioaren baitan Espainiako Auzitegi Nazionalen epaitzen hasiko dira euskal presoek eskubideen defentsan aritutako 47 euskal herritar. Fiskalak guztira 601 urteko espetxe zigorra eskatu du guztira. Haiei babesa adierazteko ekimenak

iragarri dituzte asteotarako. Batetik, sinadurak biltzeko aseteburuotan mahaia jarriko da frontoi inguruan.

Bestetik, irailaren 14an Bilbon (17:30etan Kasillatik) deitu den manifestaziorako autobuz zerbitzua antolatu da. 15:00etan abiatuko da Oiardo

Kiroldegitik.

- Izen ematea ohiko tokietan, irailaren 12ko 16:00ak arte.
- Informazio gehiago: 11-13makroepaiketa.eus

Harrera "Orain presoak" bizikleta martxari

Euskal presoak etxeratze-

ko aldarri artean heldu eta zeharkatu zuten Usurbil uztailaren 19an, Sare mugimenduak Luhusotik Gernikara antolaturiko "Orain presoak" bizikleta martxako kideek. Herritar talde batek Atxegalde parean egin zien harrera.

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

BORDATXO
taberna

Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

ZENDOIA
ENE taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil

Tremefil-Izaguirreko langileak: “Akordiora iritsi gara enpresako zuzendaritzarekin”

Uztailaren amaieran lan-uzteak iragarri zituzten. Helburua, lan hitzarmen berri bat sinatzea. Hilabeteren buruan, “hitzarmen duin baten akordiora iritsi gara enpresako zuzendaritzarekin”. Azken asteotako negoziazioen ondoren, %2ko igoera lortu dute langileek.

Igoera batetik lineala izango da. “Gutxiago irabazten dutenek gehiago irabaziko dute eta, gehiago irabazten dutenek gutxiago”, langileen ordezkariak aditzera eman digutenez. “Bestetik, igoera finkoa izango da. Irabazitako igoera, irabazita dago betiko. Beraz helburua lortuta, greba bertan behera uztea erabaki dugu”.

Ez dira aste errazak izan eta



Lan-uzteak uztailean hasi zituzten. Akordioari esker, normaltasunera itzuli da Osinalde industrialdeko enpresa.

langileen ordezkariak eskerrak eman nahi dizkiete aste hauetan gertu izan dituztenei: “eskerrak eman nahi dizkiegu gerturatu diren langileei eta pertsonei, beren elkartasun adierazpenen-

gatik. NOAUA!ri ere eskerrak eman nahi dizkiogu Tremefil-Izaguirreko langileen ahotsa jaso eta zabaltzeagatik. Barkamenak eskatu Usurbilgo herri-tarrei egun hauetako megafono

zaratarengatik”. Bukatzeko, langile guztiei zuzendutako mezua zabaldu nahi dute: “indarra zuek daukazue. Baturik borrokatuz gero geldiezinak gara”.

Garbitaniaren lan eskaintza

Gidari-biltzaileen lan-poltsa handiagotzeko hautaketa prozesua deitu du Garbitania Zero Zabor S.M.-k, aipatu enpresari sor dakioken aldi baterako beharrak asetzeko. Deialdian izen emateko irailaren 13ra arteko epea dute interesdunek.

■ Informazio gehiago eta oinarrien berri zehatzagoa hemen: garbitania.eus

ERREFUSAREN BILKETAREN EGUTEGI ZUZENA 2019

(ZUZENDU NOAUAKO EGUTEGITIK)

IRAILAK >>>>>> 8, 22

URRIAK >>>>>> 6, 20

AZAROAK >>>>>> 3, 17

ABENDUAK >>>> 1, 15, 29

URTINEA
San Esteban Auzoa, Usurbil - Tel: 943 36 22 55

“Gure asmoa HHI sendotzea da”

Irailaren 13ra arte zabalik dago doako Helduen Hezkuntza Iraunkorrean (erdaraz “EPA”) matrikulatzeko epea. Lasarte-Usurbilgo HHI-ren zuzendari Ana Murua-ekin bildu da NOAUA!.

NOAUA! Zer erronka dituzue ikasturte berriako?

Ana Murua: Gure asmoa Usurbilen HHI sendotzea da, Usurbilgo herritarrei helduen hezkuntzaren helburu nagusia den bizi guztirako ikaskuntza eskaintzen segita.

Nori zuzendua dago matrikulazio kanpaina?

Hiru esparruetan banatutako oinarritzko formazio arautua eskaintzen dugu Usurbilen: komunikazio esparrua (oinarritzko ingelera, gaztelera eta euskara), giza esparrua (historia, geografia eta historiarekin lotutako mugimendu artistikoak) eta esparru zientifiko-teknologikoa (natur zientziak, egunerokotasunari lotutako matematika eta oinarritzko informatika). Esparru bakoitzak lau modulu ditu eta modulu bakoitza lantzen bi ikasturte egon daitezke. Bigarren gradua eskainiko dugu Usurbilen.

Asistentzia da moduluok gaintzeko giltzarria?

Gradu bian azterketarik ez dugu egiten, gehienbat asistentzia, parte hartzea ebaluatzen dira. Helburua ez da titulua eskuratzea. Gehienek etorri eta oinarritzko kultur formakuntza jaso nahi izaten dute. Oso ondo pasatzen dute.



Helduen Hezkuntza Iraunkorrean (EPA delakoan) matrikulatzeko epea irailaren 13an amaituko da.

ANA MURUA

“Giro oso ona egoten da. Irakasleekin ere oso harreman ona dute”

Nolakoa da ikasturteko dinamika?

Urtean zehar irteera didaktiko asko antolatzen ditugu. Baita atzerrira bidaia bat, eta ikasturte bukaerako egun osoko txangoa. Oso ondo pasatzen dute. Horrez gain, jarduera osagarriak antolatzen ditugu; Liburuaren Eguna, Santo Tomas Eguna, Emakumeen Eguna... Gure ikasleak biltzen dira, luntx bat egiten dugu, ikasleek beraien lanak aurkezten dituzte.

Harremantzeko eskola ere bada.

Giro oso ona egoten da. Irakasleekin ere oso harreman ona dute. Bat baino gehiago agian ez zen aterako etxetik HHI egongo ez balitz. Beraientzako garrantzitsua da, ikastea, jen-

de berria ezagutu... Oso pozik etortzen dira. Honek beste bizi-modu bat ematen die. Hasten duenak jarraitzen du. HHI-ren helburu nagusia hori da hain zuzen, bizi osorako ikaskuntzarekin jarraitzea. Animatu eta probatu!

Matrikulazioa zabalik

- Epea: irailak 13, ostirala.
- Ordutegia: astelehenetik ostegunera 10:00-13:00/17:00-19:00 (ostiralean goizez bakarrik).
- Helbidea: Beheko Kale Bidea 1, 3. solairua (anbulatorio gainean), Lasarte-Oria.
- 943376443 / 943 366 608.
- info@epalasperte.eus
- Baldintza: 18 urte beteak izatea.
- Oharra: bat, bi edo hiru ikasketak esparru hauta daitezke, norberak HHI-ri eskaini nahi dizkion ordutegi kopuruaren edo zaletasunen arabera. Ikasketak eskaintza malgua.
- Ikasketen gunea: Udarregi Ikastolaren Agerialde eraikina.

Ostiralean, masusta zaletuen festa

Masustari gorazarre egiten dion bilgunea irailaren 6an elkartuko da 21:00etan Artzabalen. Iazko jaialdian hautatu zuten kofradekide berriak zin egingo du urtez urte hazten doan bilgunearen festan eta 2020ko jaialdiko kofradegaia izendatuko dute, guztia masusta osagai nagusia izango duen kan-tu afariaren baitan. Jaialdi irekia izango da herritar ororentzat. Bertaratu nahi duenak aurrez eman dezala izena Artzabalen.

Eguzki Elkartearen 50. urtemuga festa

Mende erdia bete duen Munalurrako Eguzki elkar-teak urtemuga jai giro be-tean ospatuko du aste-bete barru, irailaren 14an:

Irailak 14 larunbata

- Goizean zehar, helduentzako jokoak izango dira (Igela, Toka...).
- Eguerdian, bazkari herrikoia elkartean.
- Arratsaldean, haurrentzako jolasak eta musika egongo da.

Zubietako akten irakurketa

Donostiako Euskal Jaien baitan, irailaren 7ko Gaztelu Egunean Zubietako akten irakurketa ekitaldia antolatu dute hiriburuko Konstituzio plazan arratsaldeko 20:30ean.

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA

ETXETRESNEN KONPONKETAK eta SALMENTA
MARKA GUZTIAK azkar, prezio onean
20 URTEKO ESPERIENTZIA
645417665
XABIER Usurbil

Parti
barkariak EGUNERO
afariak, ostegunetik larunbatera
943 362725 • 688 690 361

ZALDIGAIN
ERREMENTARIA
• Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
• Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuak...
www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867
Fax. 943300045

Rikardo Arregiren inguruko film labur bat grabatu dute Usurbilen

Maluta Filmsek Rikardo Arregiri buruzko film labur bat grabatu du uda honetan. Andoainean eta Usurbilen egin dituzte errodaje-lanak. “Euskaraz egindako fikziozko film labur honen bidez, beste ale bat jarri nahi dugu Rikardo Arregi nor izan zen ezagutarazteko bidean, haren heriotzaren 50. urteurrena bete den honetan”, ekoiztetxetik aditzera eman digutenez.

Pentsalaria, sustatzailea, ekintzailea eta proiektu askoren egilea, “euskaltzale sutsu hau bere burua iraultzailatzat zuen belaunaldi baten kide izan zen; izan ere, tradizioaren eta baserriko munduaren mugak gainditu eta euskal gizarte berria sortzea zuten amets:



Ainara Mendiola idatzi eta zuzendu du Rikardo Arregiren inguruko film laburra. Usurbilen hainbat sekuentzia grabatu zituzten abuztuaren 17an.

moderno, euskalduna eta progresista”.

Proiektua gauzatu ahal izateko, Maluta Filmsek Rikardo Arregiren artikuluak eta hitzaldiak hartu ditu ardatz. Tartean, Usurbilen 1966an eman zuen hitzaldia, “euskal gizarte eta

kulturgintzako izen handiko pertsonen aurrean, Udarregi bertsolariari egin zitzaion omenaldian”.

Atzerapenik ez bada, azaroan ikus ahal izango dugu Ainara Mendiola idatzi eta zuzendu duen film laburra.


Euskara eta aisialdiko diru-laguntzen ebazpenak

Abuztu erdialdean argitaratu zituen Udalak behin behineko ebazpenak. Udalak eskaera guztion artean 17.331,24 euro banatzea ebatzi du. 15.363,74 euro, euskarako diru-laguntza deialdian, 1.967,50 euro aisialdikoan. Aurreko ikasurtean euskara ikasten ari tutako 37 ikasleek aurkeztu zituzten eskaerak, aisialdiko begirale edo zuzendari titulua ateratzeko ikastaroa egin zuten beste 11 lagunek. Laster argitaratuko du Udalak diru-laguntzaren gaineko behin betiko ebazpena. Gogoan izan, euskara doan ikasteko aukera (600 euroko mugarekin) eta aisialdiko ikastaroon gastuen %50a aurrezteko aukera eskaintzen dute laguntzok.

 **Neinor** HOMES

USURBIL HOMES

Ikuspegi onenak dituen ingurune natural batean bizi



Terraza zabalak



Sukalde hornituak



Pack Domotikoa eskuragarri

Bisita gaitzazu Lasarten: **Hipodromo Etorbidea, 10**

• **900 11 00 22** •
neinorhomes.com







jaietako argazki eta irudi gehiago topatuko dituzue noaia.eus web orrialdean.





San Estebango jaietako argazki eta irudi gehiago topatuko dituzue noaua.eus web orrialdean.





Euskara hobetu, aukera baliatu

Buruntzaldeko udalek euskaltegiatako matrikulak ordaintzeko diru laguntzak ematen dituzte, euskara ikastea bultzatzeko. Ikasleari ia doakoa, edo kasu askotan, doan atera dakieke ikastaroa. Gainera, eskaintza zabala dago eskualdean: zortzi euskaltegi daude.

Ikasturte berriarekin batera izan ohi da promesak egiteko garaia. Hizkuntzak ikasi, kirola egin, antzerkian edo dantzan hasi... Horietan denetan, bada apustu segurua den hautua: norberaren hizkuntza propioa hobetzea. Buruntzaldea eskualdeko euskaltegiak eskaintza zabala dute 2019-2020 ikasturterako, ordutegi eta maila guztiekin. Bada, gainera, beste abantaila bat. Eskualdeko udalen helburua matrikulazioak bultzatzea da, eta, horretarako, diru laguntza sortak eskaintzen dituzte. Laguntza horiek HABEk ematen duenarekin bateragarriak dira. Horrenbestez, Buruntzaldeko herritarrei ia doan, eta kasu askotan, doan atera dakieke ikastaroa; apustu segurua da euskara ikastea.

Ikasturtea hasiera doa. Iaz, 2018-2019koan, 924 ikasle aritu ziren euskaraz ikasten Buruntzaldeko euskaltegiren batean. Gehienak, emakumeak: %67,9. Eskualdeko Euskara Zerbitzuen helburua da ikasle gehiago izatea; 1.000 ikasleetara iristea dute buruan.

Oraindik 2018-2019 ikasturteko datuak itxi gabe dituzte, eta, beraz, irail amaiera arte ezingo dira matrikulazioen behin betiko kopuruak jakin. Edonola ere, orain arte bildutakoei erreparatuta, baikor agertu dira eskualdeko euskara teknikariak. Udarako ikastaroen datuen faltan, matrikulazio gutxi batzuk behar dira muga hori gainditzeko.

Zortzi euskaltegi daude guztira eskualdean. Bina Lasarte-Orian eta Hernanin, eta bana Urnietan, Hernanin, Andoainen eta Usurbilen.

Eskualde osoko eskaintza



Euskaltegiatako ikasleak, apunte artean, ikasturte amaierako azterketarako prestatzen. Argazkia: Buruntzaldeko Udalak.

IKASTURTE BERRIA

“Buruntzaldeko euskaltegiak eskaintza zabala dute, ordutegi eta maila guztiekin”

aintzat hartuta, non aukeratua badago. Astelehenetik ostiralera, zortzi euskaltegi horietan bakoitzaren beharren arabera ikastaroak ematen dituzte. Hasteko, maila aldetik; A1, A2, B1, B2, C1 eta C2 egiteko aukera dago. Baita ordutegi aldetik ere; eskolak goizetan, eguerditan eta arratsaldetan, iluntzera arte daude. Nork bere kabuz autoikaskuntzan ikasteko abagunea ere badu. Tutoretzak, programazio pertsonalizatuak eta mintza-saioak eskaintzen ditu ikastaro mota horrek.

Eskolez gain, beste alderdi praktikoagoa ere eskaintzen dute euskaltegiak: Mintzalaguna egitasmoaren bidez, astean behin 5-6 pertsonako taldeekin biltzeko aukera dago, euskaraz aritzeko. Beste ekintza osagarriak ere eskaintzen dituzte euskaltegiak, hala nola, irteerak, txangoak...

Udalen laguntza

Buruntzaldeko udalek ematen dituzte diru laguntzak euskaraz ikasteagatik. Halere, herri bakoitzean laguntza horiek jasotzeko baldintzak eta diruz lagundutako kopuruak desberdinak dira. Baina badira ezaugarri komun batzuk. Esaterako, gutxieneko asistentzia bete behar da, eta erroldatuta egon behar

da herrian bertan. Langabetuei are laguntza handiagoak ematen dizkiete; %100 kasu batzuetan, 500, 600 edo 664 euro arteko mugapean, aldeak baitaude herri batzuetatik besteetara.

Horrez gainera, HABE Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak ere laguntzak ematen ditu. Ondokoak dira baldintzak: bate-tik, 2018ko martxoaren 23tik 2019ko abuztuaren 31ra bitarteko epealdian euskaltegi edo euskararen zentro homologatu batean matrikulatuta egon behar da; bestetik, 2018-2019 ikasturtean HABEren maila bat edo baliokideren bat egiaztatu behar da. Diru laguntza horien eskabidea 2019ko irailetik aurrera egin daiteke.

Hain zuzen, diru laguntzek erakarrira ematen dute izena ikasle batzuek. Askotariko arrazoiak dituzte euskara ikasteko. Batzuek lana dela-eta titulu ofizialen bat atera nahi dute. Pili Meiraren kasua da. Astean 7 ordu eta erdi ematen ditu, arratsaldetan. “Goizetan lan egiten dut, gero ume txikiekin nabil, baina denbora ateratzen dut. Merezi du ahaleginak”.

Autoestimak gora

Jonek, ordea, ez du titulurik behar. “Aspaldi euskara landu gabe nuen, eta konturatu naiz asko dakidala. Autoestimua asko indartu dit euskaltegiak. Ingelesa nahi nuen ikasi, baina ez zitzaidan bidezkoa iruditzen norberaren hizkuntza menperatu gabe beste bat ikasten hastea”.

Buruntzaldeko udalen

diru-laguntzak

Andoain

■ Baldintzak: Andoainen erroldatuta egotea. Gutxieneko asistentzia: %85.
■ Diru laguntza: Matrikularen %85 guztiei; familia ugariakoak edo diru sarrera murritztuak dutenei, %100. Autoikaskuntza, %100. 664 euroko muga.

Astigarraga

■ Baldintzak: Astigarragan erroldatuta egotea. Gutxieneko asistentzia: %85.
■ Diru laguntza: Kasu guztietan 600 euroko muga izango du laguntzak. Matrikularen %75. Langabetuei, merkatariei eta 12 urtetik beherako haurren bat dutenei: %100.

Hernani

■ Baldintzak: Hernanin erroldatuta egotea. Gutxieneko asistentzia: %85.
■ Diru laguntza: Matrikularen %70. Langabeei, %90. 500 euroko muga.

Lasarte-Oria

■ Baldintzak: Lasarte-Orian erroldatuta egotea. Gutxieneko asistentzia: %85.
■ Diru laguntza: Matrikularen %85.

Urnietan

■ Baldintzak: Urnietan erroldatuta egotea. Gutxieneko asistentzia: %80.
■ Diru laguntza: Langabeei, %100. Besteei, %85. 500 euroko muga.

Usurbil

■ Baldintzak: Erroldatuta egotea. Gutxieneko asistentzia: %80.
■ Diru laguntza: Guztiei, matrikularen %100. 600 euroko muga.

*Buruntzaldeko udalek %70 - %100
artean diruz laguntzen dute euskara ikastea!*

Usurbil



Andoain



Lasarte-Oria



Urnieta



Hernani



Astigarraga



**Eus
ka
ra
ikasiz**
Erabiliz ikasi,
ikasiz erabili



buruntzaldea.eus

Jo gogoko duzun euskaltegia eta izena eman!

ANDOAIN

Andoaingo AEK
Plazaola, 2.
andoain@ae.eus
943 591 704

LASARTE-ORIA

Muntteri AEK Euskaltegia
Geltoki kalea 17 Behea
943 372 863
lasarte@ae.eus

HERNANI

Hernaniko AEK
Larramendi 11
943 557 801
607592864
Zilegi eskola: 663043314

USURBIL

Etumeta AEK
Euskaltegia
Kale Nagusia 43, Behea
607 609 379
usurbil@ae.eus

ASTIGARRAGA

Astigarragako AEK
Kultur etxea. Nagusia 48.
eta Nabarra Oñatz 3
607610687

Lasarte-Oriako Udal Euskaltegia

Bekokale bidea, 1
(anbulatorioaren
gainean)
943 36 16 21
euskaltegia@lasarte-oria.eus

